



ANAITASUNA

AÑO II—Núm. 13

Suplemento a la Hoja
"ANAITASUNA" de Guipúzcoa

Julio 1954

GEURETZAKO DANA

Ze ederra dan uda sasoi! Gure inguruan ikusten ditugun gauzak, beste kolore bat artzen dabe aldi onetan, argiagoa, biziagoa, gozoagoa. Guk geuk-be, txorien antzera, biotzeko egoak zabaldu gura izaten doguz eta batetik bestera egaz egin, izadi osoaren atsegiña geuganatuteko.

Benetan, gauza ederra da, izanbere, mundua. Bertan ikusten doguzan gauza guztiak, geuretzako egin ditu Jainkoak, bere semeak gara-ta. Orrexegaitik, ezin geinkez, geiagoko barik, erre kara bofa gure ondasunak; ezin, errazoi barik, lurrean bizi dan zer txikienari sufridu eragin, edo aizeagaz olgetan dabillen loratxua apurtu. Orretarako ez deuskuz Jainkoak emon munduko gauzak.

Berak gura daben legez egiten badogu, erabilli geinkez gure atsegiñerako gauza guztiak. Orra or, Jainkoari otoitz egiteko eta zeruko Aita alabetako modu ederra.

Jan mailluki gozoak, kristiñauak legez; zigarro eder bat erre, kristiñauak legez; lagunakaz ardao zuria edan, kristiñauak legez; jantzi ta orraztu polito, neskatilla, kristiñauak

legez; plaiara joan, kristiñauak legez; jantzan egin naiz emaztegei polita billatu, kristiñau zintzo batek egin bear daben legez.

Olanik egiten badogu, gure bizitza guztia zeruko Aitaganako alabantzatza otoitza izango da, ta pozarren biziko gara, Jainkoak gauza guztiak ze ondo egin dauzan ikustean, eta zenbat maite gaituan jakitean.

Baiña, Jainkoak egin dituan gauzok, gure kalterako erabilten doguzanean, gure barruko deiaren kontra goazala, naiz iñoren eskubidea zapaltzen dogula, orduantxe asten da gaiztakeria.

Ta askotan, okerkeri ori aundia izaten da, gure Aitak egñiko gauzak naiz personak Jainkotzat artzen doguzanean, eta gure biotzean benetako Jainkoaren orde z ipinten ditugunean.

Batzuk euren sabela dauke Jainkotzat; beste batzuk euren aragia, euren jakituria, euren dirua.

"Zuek, barriz, ez dozue Jainko bat baiño. Maite eizue Bera munduan dagozan gauza guztien bitartez" (San Paulok).



"Euskalerrria, Pirineo Mendi egaldetan kantari bizi dan erri bat dozu". Auxe esan eban Urduia jakitunak, euskaldunak nortzuk garean adierazoteko. Erri kantaria, Euskalerrria!

KONFIRMAZIÑOKO SAKRAMENTUA

6.—Konfirmaziñoako Sakramentua, Eleizako Maixuak irakasten daben legez, ez da bearrekoa gure arimak salbetako.

Sakramentu au ez artzea, pekatu eta da?

7.—Nortzuk dauke Konfirmaziñoa emoteko eskubidea?

- a) Kardenalak eta Obispoak?
- b) Parrokoak?
- c) Edozein Abadek?

8.—Urria kristiñauak, Konfirmaziñoako Sakramentua pekatu astunean artu dau.

Esaidazu:

- a) Olan arturiko Sakramentuak ez deutso balio izan?
- b) Sakramentuak ez deutso frutu onik ekarri?
- c) Barrero artu bearko ete dau Sakramentua?
- d) Konfirmaziñoa artu aurretik, konfesau edo kontriziñozko damua euki bear ete eban?

(Erantzupenak azkenengo orrialdean)

Zoliak dira gure basoetako txoritxuen txiotxioak; baiña zoliagoak gure gazteen irrintzi ta santzoak. Garbiak dira gure ibarretako errekatillan ur gardenak; baiña garbiagoak gure neskatillan boz estitsuak.

Zorionekoa, kantetan dakian errial Abestuten daben bitartean, ez da bere biotzean jarriko atsekabearen geriza kadena, eta eriotzearen arrak ez deutzaz iñoiz arimako azurrak ustelduko.

Baiña aspaldion ez da pitin bat mututu Euskalerrriko txori kantaria? Bai antza.

Asi gaitzezan osterabere indar geiagogaz kantetan, negu guztian ixilik egon dan birigarroaren antzera. Abestu daiguzan gure asabak irakatsiriko kantu zoragarriak. Kanta daigun gure ibar-mendien berdea, gure zeruaren urdiña, gure itxasoaren zabal, gure mutillan indarra, gure neskatillan ederra, gure bizitzearen poza, gure Jainkoaren maitasuna. Ikasi ta abestu daiguzan euskal kantak. Esan daigun Mendiaga Frantziako euskal bertsolariagaz batera:

Kantuz eginda gero mundura etortea,
Kantuz egin bear dot, azkenik, iltea.
Kantuz egiten badeust launak mesedea,
Kantuz idigiko deust San Pedrok atea,
Kantuz egin dagidan zeruan sartzea.

IKUSTEN DOZU GOIZEAN

Elizanburu

Ikus-ten do-zu goizean, ar-gi-a asten danean, menditxu baten gainean
 Etze zu-ri-ten, txiki, po-lit bat, areix-ti baten erdi-an, txakur zu-
 ri bat a-tean, i-turri-ño bat aldean: antxe bi-xi naiz ba-ke---an.

1

Ikusten dozu goizean,
 Argia asten danean,
 Menditxu baten gainean,
 Etze zuritxu, txiki, polit bat,
 Areizti baten erdian,
 Txakur zuri bat atean,
 Iturriño bat aldean:
 Antxe bizi naiz bakean.

2

Ez bada-be gaztelua,
 Maite dot nik sorlekua,
 Aiten aitak autatua.
 Etxetik kanpo jat iruditen
 Nunbait naizala galdua;
 An naizalako sortua,
 Antxe itxiko dot mundua,
 Galtzen ez badot zentzua.

3

Etxean ditut neureak,
 Atxur, akulu, goldeak,
 Buztari eta edeak.
 Igazko garauz, ditut oraindik
 Zoko guztiak beteak;
 Lengo urtearen frutuak
 Emoten badauz besteak,
 Ez gaitu ilko goseak.

4

Lantzarreko iru beiak,
 Esnez beterik titiak,
 Txal eta zekor lodiak,
 Idi bi aundi, kopeta zuri,
 Lepo baltz, adar aundiak,
 Auntz eta bildots guriak,
 Arito eta ardiak,
 Neureak dira guztiak.

5

Ez da munduan gizonik
 Erregerik ez zaldunik,
 Ni baizen dontsua danik.
 Ba-dot andrea, ba-dot semea,
 Baita alabea-bere nik;
 Osasun ona batetik,
 Ondasun naiko bestetik.
 Zer bear dot geiago nik?

6

Goizean asi lanean,
 Arratsa eldu danean
 Nagusia naiz maieran.
 Kristiñau on bat neban aurkitu,
 Nik emaztea artzean;
 Ez dau bigili egunean
 Jarriko uste bagean
 Okelarik platerean.

7

Periko nire semea,
 Naiz izan oso gaztea,
 Ba-da mutiko ernea.
 Goizean goizik landen erdira
 Ba-daroa artaldea;
 Ba-dauka nire egitea;
 Jarraituz nire bidea,
 Ez dau galduko etxea.

8

Nire alaba Katalin,
 Bere amaika urtekin
 Ondo doa amarekin.
 Begiak ditu amak bezela,
 Zeru goia baizen urdin.
 Uste dot denporearequin,
 Oraingo itxurearequin
 Andra on bat izan dadin.

9

Ondo bizirik etxean,
 Ez dogu bear lurrean
 Itxi laguna gosean.
 Ez dau pobreak sekula joten
 Gure etxeko atean,
 Euki bagarik maieran,
 Bazkalordua danean,
 Leku bat gure aldean.

10

Nire andrea Maria
 Ez da emakume aundia,
 Baiña emazte garbia.
 Berari eskerrak, ba-dot etxean
 Nik bear dodan guztia.
 Eskatuten dot grazia,
 Daukadan legez asia,
 Amaituteko bizia.



**Jakin
ba...**

6.—Bai, pekatu da. Konfirmazi-
ñoako Sakramentua gure arimak sal-
betako bearrekoa ez izanarren, gure
nagikeriz artu barik ixten badogu,
pekatu egiten dogu, pekatu ariña
beintzat.

7.—Konfirmaziño emoteko esku-
bidea, oneexek bakarrik danke:

- a) Kardenalak eta Obispoak.
- b) Parrokoak, noredonor erio-
tzako arriskuan dagoanean,
eta Obispoa bera etorri ezin
leitekenean.
- c) Osterantzeko Sazerdoteak,
naiz Abadeak, naiz Prailleak,
Aita Santuaren berarizko
baimena euki ezik, ezin lei-
kee Konfirmaziñoako Sakra-
mentua iñori emon, ezta ilte-
ko zorian dagoanari-bere.

8.—Pekatu astunean artutako
Konfirmaziñoa, egiazko Sakramen-
tua izanarren, frutu bakoa izan da.
Baña alan ta guzti-bere, kontriziñoz-
ko damu edo konfesiño on baten bi-
tartzet, Urtia kristiñauak pekatuzko
estadutik urteten dabenean, Konfir-
maziñoako grazia berbiztu egiten da.
Zetan esan-bere ez, Konfirmaziñoako
Sakramentua barriro ezin artu leite-
kela.

Gaixoak:
— Orduan, paitarragaz igurtzi
bear deuste lepoa?

Osagilleak:
— Bai, gizon. Igurtzialdi eder bat
lepoan, ta beingoan joango jatzu
gatxa.

Gaixoak:
— Ta esan beist, Jauna. Ez litza-
ke bardin izango, paitarra lepoa ta
bularraren artetik pasetea?

KURUTZEGRAMA N.º 10

	1	2	3	4	5	6	7	8
I								
II								
III								
IV								
V								
VI								
VII								
VIII								

Ezkerretik eskumaldera: 1. Jakiten ne-
bazan.—2. Siku (pozuak). Ordaindu bearra (a-
tzekoz aurrera).—3. Ibaia alde batetik bestera
igaroteko. Numerua.—4. Leku onetara. Kon-
sonante letrea.—5. Konsonante letrea. Pron-
ombre personala.—6. Arbia. Zolia.—7. Ario-
toak egiten dabe (atzekoz aurrera). Andra Ma-
riaren Ama.—8. Joan gaitezan. Konsonante
letrea.

Goitik beera: 1. Egoten giñean (atzekoz
aurrera).—2. Gaua ez dana. Txarri arra.—3.
Mendi zuloa. Ameriketako suge aundia.—4.
Pronombre personala. Bero ez dana.—5. Kon-
sonante letrea. Bokalk letrea.—6. Laster. Bera
len izan.—7. Zein. Zein lekutan.—8. Pronombre
personala. Persia'ko erreñuaren oraingo izena

AZALPENA. Ezkerretik eskumaldera:
1. Nekizan.—2. Agor. Zor.—3. Zubi. Inu.—4.
Ona. N.—5. G. Ni.—6. Nabo. Zur.—7. Tope.
Ana.—8. Goazan. N. **Goitik beera:** 1. Gen-
gozan.—2. Egun. Apo.—3. Koba. Boa.—4. Iri.
Oiz.—5. Z. A.—6. Arin. Zan.—7. Nor. Nun.—
8. Zu. Iran.